Silvia Marañon Chasco (1, guztira 1)
Alkatea / Alcaldesa
Sinaduraren data: 06/07/2020
HASH: 6b4910a63fb5fdc554a23e1d9eb8fe3e

EDIKTUA

2020ko KARGU PUBLIKOEN ORDAINSARIEN AKORDIOAREN ALDAKETA

Ikusita 2020/02/21ean Osoko Bilkurak 2020. Urterako Etxarri Aranazko Udaleko kargu publikoen ordainsariak zehazteko hartutako akordioa.

Ikusita Silvia Marañon Chasco Alkatea oporretan dagoen bitartean Alkateordea den Lur Iosu Larraza Lopez jaunaren ordainsarien inguruko atal berri bat sortzeko beharra dagoela.

Ikusita 7/1985. Legearen 7. artikulua eta 2568/1986. Errege Dekretuaren 13. artikulua.

Etxarri Aranazko Udalbatzak, 2020ko uztailaren 1ean egindako osoko bilkuran **ERABAKI DU:**

1.- 2020ko martxoaren 13ko 51. NAOn argitaratutako Etxarri Aranazko 2020. Urteko kargu pubilkoen ordainsarien inguruko akordioa aldatzea, Alkateordea den Lur Iosu Larraza Lopez jaunaren ordainsarien inguruko atal berri bat sortzeko:

“Lehenengoa. Silvia Marañon Chasco Alkatearen udako oporretan Alkateordea den Lur Iosu Larraza Lopez jaunak Alkatea ordezkatuko du bere zeregin guztietan.

Ordezko Alkateak dedikazio partzialeko erregimenean egingo ditu dagozkion zereginak, astean 17,7 orduko lanaldiarekin, eta hileko 1.381,76 euroko soldata gordina jasoko du, aparteko ordainsarien zati proportzionala barne.

Kopuru horiei Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren eta Gizarte Segurantzako langile-kuotaren kontzeptuan legez dagozkien atxikipenak aplikatuko zaizkie, eta Udalak bere gain hartuko du enpresa-kuota ordaintzea.

Bigarrena.- Beharrezkoa den momentuetan, Gizarte Segurantzaren lurralde-bulegoari eskatuko zaio Gizarte Segurantzaren dagokion araubidean afiliatzeko edota alta emateko, aplikatu beharreko araudian ezarritakoarekin bat etorriz.

Hirugarrena.- Erabaki hau hartzen den egunean bertan sartuko da indarrean, hargatik eragotzi gabe geroago Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzea.”

2.- Erabakia Udaleko iragarki oholean eta Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu.

3.- Erabakia Udaleko Kontuhartzaileari jakinarazi, bere ondorioak sor ditzan.

Elektronikoki sinatutako agindua
ALKATEA: Silvia Marañon Chasco

Baliozkotze Kod.: EMG9TWNQ74YGS4DJGF4DQ26HJ | Egiaztapena: https://etxarriaranatz.egoitzaelektronikoa.eus/esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 1. orrialdea, guztira 1